

ezagutzen al
duzu Donostia?

Okendotegi eta Olatxo

Okondotegi deitzen dute bertako auzotarrek, bai, eta ez *Okendotegi*. Era berean, *Okondo* deitzen da, eta ez *Okendo*, Euskal Herriko mendebaldean -Laudiotik hurbildagoen Araba lurraldeko herria ere.

Nondik datorkio deitura hau Urumea ertzeko lur oparoetan dagoen Amara Behea zaharreko etxe horri? Inguruan dauden aztarnetatik bertako baserritarrek hitz eginda edo leku hauetaz mintzo diren istorioak irakurrita, ezin dut ziurtatu leku honetan Okendo izeneko Donostiako jauntxo eta haundikien oruberik zegoenik, baina okendotar hiriko harresi barnean zuten jauregia, eta beraienak ziren *Manteoko* oinetxea, Urumea eta Aia inguruko hainbat burniola eta abar ere. Ziur aski *Okondotegi* eta bere inguruan dauden *Olatxo* baserria ere beraienak izango ziren. Garai batean burniola baten zati izan ote ziren bi etxe hauek? Dena dela ez da bertan burniola



Okendotegi.



Olatxo.

aztarnarik aurkitu.

Hurbilagoko garaietan Okendotegin hiru ardatzeko tolare handi bat zegoen; gaur egun hau desagertu eginda. Baserri honen

baratzak, *Olatxokoak* bezala, benetan oparoak izan ziren lehen eta honela jarraitzen dute gaur ere, etxe hauetako baserritarren lanari esker, noski. Baserri

hauetako barazki eta fruituak Groseko merkatuan eros zitezkeen, orain dela gutxi bota zuten arte.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

Donostiako
turrik
aberatsenak
daude Amara
behe zakarreko
Urumea
ibarrean. Lur
oparo hauetan
daude
Okondotegi eta
Olatxo baserriak.

Ziur aski
«Olatxo» ere
Okendo
jauntxoarena
izango zen garai
batean.



Kultur bat desagertzen denean, gizakortasunaren ate bat isten da

Peña y Goñi 13, 1 • Tfnoa.: 32 19 47 • Faxe: 32 17 81